

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZOr
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

KULTURA

Azkenik, zerbitzu publikoen eta kulturaren atalean, garbi utzi behar da kultur politikak bi helburu dituela:

- Alde batetik, balioak, bizitzeko moduak sustatzea, horiekin gizartea kohesionatzea eta honako hauetan oinarritutako elkarbizitza-esparruak osatzea: aniztasuna, askatasuna, sormena, justizia soziala, inklusioa, parte-hartzea eta demokrazia.
- Bestetik, kulturaren dimentsio sortzailea eta berritzailea ahalik eta gehien hedatzea, egungo gizarteek aurrean dituzten erronkei erantzuna emate aldera. Politika kulturalaren erronka berria da gertutasunean eta parte-hartzean oinarrituriko garapen komunitarioa gauzatzea.

Gobernu berriaren helburu nagusia izango da Nafarroan kulturaren duintasuna berreskuratzea, dibertsitatean duen aberastasunaren ikuspegitik ulertuta. Horretarako, Kultura Departamentuari aurrekontu duina eman behar zaio, inbertsio hori garapen sozio-ekonomikoaren motore ere bilakatu dadin.